

PSOEren nahia

# Sorturen legalizazioa ETAren amaieraren truke

Bilboko Euskalduna Jauregiak ez du zerikusirik tunel batekin. Behingoagatik, ordea, otsailaren 7an tunel itxura hartu zuen, besterik ez bada, egun hartan, Sorturen aurkezpen ekitaldiak hainbatetan aipatu den tunelaren amaieran argia ikustea ahalbideratu zuelako. Eta segidan, Bilboko kaleetan, hamaikagarren jende uholdeak, ezker abertzalearen legeztatzea eskatu zuen.

XABIER LETONA

EUSKAL GIZARTEAN esperantzari leiho zabala ireki zaio, horren inguruan kontsentsu zabala dago. Garai le eta garaituekin amesten dutenek ere, onartu dute zer bait aldatzen ari dela ezker abertzalean, hori bai, berehala aldaketa-tranparen teoriara itzultzeko. Behin ezker abertzaleak posizio argia hartu ondoren, orain ETAk zer dioen itxaron behar, baina bere azken bi agiriei jaramon

eginda, orain arteko ildo beretik jarraituko duela suma liteke, besteak beste ezker abertzaleak ez diolako tarte gehiago utzi. Isiltasuna ez litzateke seinalerik onena.

## Euskaldunaren aurrekari hurbilak

2007an Loiolako elkarrizketen ondoren ezker abertzalean barne egoera deserosoa bizi zen. 2009ko udarako, ezker abertzaleko zuzen-

daritzak eztabaida txostena prestatu zuen eta azarora bitartean milaka militantek eztabaida mamitsua gautatu zuten. Horren guztiaren amaiera irudikatu zuen Altsasuko Adierazpenak: “(...) Konfrontazio armatua, blokeoa eta itxaropen ezaren ordezkariak, akordioa eta Euskal Herriarentzat bidezko konponbide egonkor eta iraunkorra ekarriko dituen ziklo aldaketaren

Sorturen estatutuen aurkezpena Euskalduna Jauregian.





ARGAZKI PRESS / JUANAN RUIZ



ARGAZKI PRESS / MONIKA DEL VALLE

**Ezkerreko irudian: Ezker abertzaleak 2009an Altsasun egindako agerraldia. Eskuinean: Nazioarteko Kontaktu Taldea, joan den astean Euskal Herrian egindako aurkezpenean.**

garaia da”. “(...)Prozesu demokratikoa erabateko indarkeriarik gabe eta esku sartzerik gabe garatu behar da, soilik bitarteko politikoak eta demokratikoak erabilia“. Ziklo baten amaiera zen eta berriaren hasiera.

Eztabaidaren ondorioak 2010eko otsailan plazaratutako *Zutik Euskal Herria* agirian bildu ziren. Ondorengo, ibilbide orria gauzatzen hasia izan da: Bruselako Adierazpena, Gernikako Akordioa, Adierazi Euskal Herria, EArekin erdietsitako akordio estrategikoa, Euskal Herria Ezkerretik (EA eta Alternatibarekin), Sortu... Eta, ahaztu ezin dena, hau guzti hau posible egiten duen ETArekin ezinbesteko su-etena tartean, lehen aldiz bere historia luzean nazioarteko eragileek egiaztatze modukoa.

### Porrota ala garaipen?

Sorturen Euskaldunako aurkezpenean biolentziaren arbuizate orokorra erabiliko zela uste zen. Baina ezustekoa itzela izan zen, Rufi Etxeberriak eta Iñigo Iruinek aise gaitu zuten langa hori, aurrera begira ETArekin biolentzia ere arbuizatu eta Alderdien Legea goitik behera betetzeko prestatutako estatutuak erakutsiz. Belharrako olatuaren gisa-koa izan zen.

Ezker abertzalea hala mugitu bada, Estatuak zokoratu duelako izan dela azpimarratu du berehala ikuspegi estatalistak. Eta neurri batean ez zaio arrazoirik falta, norabide aldaketa hau bultzatu dutenek ere onartuta baitute ezker abertzalea blokeo egoeran zegoela, eta hortik

ateratzea izan dela estrategia aldaketaren gakoa.

80ko hamarkadan “erresistitza garaitzea da” (zehatzago esateko “*resistir es vencer*” esaten zen) izan zen ENAMen ikurretakoa. Higidura handiekin bada ere, pentsamolde horrek Loiolako prozesurainoko sustriak bota zituen. Loiolako porrotaren ondoren, lelo zaharra bazterrean utzi eta aldaketa estrategikoa laburbiltzen duen ikusmoldea barreiatu du ezker abertzaleak Arnaldo Otegiaren ahotik: “Erresistitzeko ez, ezker abertzalea irabazteko jaio zen”.

“Ezker abertzalea diziplina militantez atera da Lerinetik [Bigarren Gerra Karlistan karlistek erresistitu zuten herrietako bat] eta txapela kentzeko moduko ordena eta kohesioarekin. Klandestinitate gorrian eta espetxe zigor gogorak bizkarrerratu, berau aurrera eramanez erakunde guztietako buruzagiek herri honen gidaritzaz izateko moduko kemenez, malgutasunez eta ahalmenez aritu dira“. Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletxeko editoreak

**Behin ezker abertzaleak  
posizio argia hartu  
ondoren, orain ETak zer  
dioen itxaron behar, baina  
bere azken bi agiriei  
jaramon eginda, orain  
arteko ildo beretik  
jarraituko duela suma  
liteke**

argitaratutako artikuluko paragrafoa da eta seguruenik ondo islatzen du ezker abertzalearen baitan aldaketa estrategikoa nola bizi den.

### Eta hauteskondeei begira zer?

Maiatzeko hauteskundeetan ikusiko dira indar metaketa soberanistaren lehen emaitzak. Baina horrez gain, ikusiko da baita ere Espainiako Gobernuak bake prozesuari adarretatik heltzeko duen borondatea. Hauteskundeetarako Sortu legeztatzea litzateke seinalerik onena. Hala ez bada, bake prozesua atzeratu besterik ez da egingo, berau bere zentzu zabalean eman dadin (presok, biktimak, alderdien mahaia...) ezinbestekoa baita lehenik ezker abertzaleak legezko erakunde politikoa izatea. Eta berandu baino lehen hala izango da, biolentzia bako egoera batean legez kanpoko egoerak ezker abertzalea indartu besterik ez du egiten eta.

PSOEn gobernua badaki hori, baina Espainiako gizartearen aurrean dominarik desiatuena paparreratu nahiko luke eta horretarako honakoa erdietsi: Sortu legeztatzearen truke ETak bere amaiera iragartzea. Bada arrazoirik pentsatzeko horretan saiatuko dela, eta alde horretatik Sortu orain ez legeztatzea interesatzen zaio, batetik PPrekin presioa saihestegatik, eta bestetik amaiera hori aurrerago hobeto baliatu dezakeelako 2012ko Espainiako hauteskunde orokorreiei begira. Besterik da Auzitegi Konstituzionalak aukera emango dion.

Ezker abertzalea dela eta, aldagai zenbait izan ditzaketen bi aukera aurreikusten dira hauteskundeiei

## Arazo bat sortu zaio epaitegiari

Irigo Iruinek, Euskalduna Jauregian, garbi utzi zuen Sorturen estatutuak egiterakoan oso kontuan eduki dituztela Abertzale Sozialisten Batasuna (ASB) alderdia ilegalizatzeko sententzian Auzitegi Gorenak esandakoa. Gorenaren auto horretatik interpreta liteke ezker abertzalearen alderdi berriak, aurrekoen "jarraipena" ez dela ziurtatzeko *contraindictio* gisa, ETAren biolentzia errefusatu behar duela. Sorturen estatutuek ez dute duda-mudarako tarterik uzten zentzu horretan. Are gehiago, alderdi berriaren "haustura" egituran (afilizioak, isunak...) eta eszenifikazioan (irudia, izena...) ere plazaratu dute.

Fiskalak baina, Sorturen inskripzioa eragozteko eskatuko dio Auzitegi Gorenari, Sortu Batasunaren jarraipena dela esanez. Fiskalak esku artean dituen polizia txostenek diote, Sorturen atzean, ilegalizatutako alderdi eta taldeetako kide ezagunak daudela. Hain zuzen ere. 2009an Iruñean agerraldi jendetsua egin zutenetik, behin eta berriz azpimarratu dute Alderdien Legea betetzeko asmoa, ados egon ez arren. Baina datu horrek ez luke ondorio juridikorik izan behar, Gorenak ASBren kontrako autoan hauxe ere baitio: "Ezerk ezin die eragotzi Ezker Abertzaleko kideei beraien borondate kolektiboa azaltzeko instrumentu politiko berria sortzea". Justiziak ez ditu pertsonak epaitzen, hauen ekintzak baizik.

ARGAZKI PRESS / ANDONI CANELLADA



Sortu alderdiaren inskripzio eskaera Madrilan.

Agidanez, poliziek ez dute frogarik, analisi hutsak baizik –hori salatu du Demokraziarako Epaileak (JpD) elkarteak–. Ikusteko dago Auzitegi Gorenak botoi gorria sakatuko duenentz. Iniciativa Internacjonalistarekin sakatu zuen, eta Konstituzio Auzitegiak zaplazteko ederra eman zion. Arriskatuko al da berriz ere beste zaplazteko bat jasotzera?

*Urko Apaolaza*

begira: Sortu legezkoa bada, meta-keta soberanista EAekin eta Alternatibarekin batera islatuko da EAeko hiru diputazioetan. Eta Nafarroan EAekin. Sortu legezkoa ez bada, udaletan herri hautagaitzen legalizazio-ez legalizazio jokoa errepikatuko da, 2007an bezala; eta diputazioetan EAK eta Alternatibak bilduko lukete boto multzo hori, baldintzen arabera ezker abertzaleko hautagai garbiakin edo gabe.

Inoiz eman gabeko egoera litzateke eta ikusmira handia dago polo soberanistaren lehen ernamu horrek bildu dezakeen boto kopuruaz. Abertzaleen artean erakarpen handia izan ohi duten osagaiak dituzte: su-eten egoera, ezkerreko abertzaleen aliantza eta, garrantzitsuena dena, borroka armatua behin-betiko gainditzeko aukera.

Gipuzkoarako bederen lehia gogorra aurrikusten da EAJrekin eta ikusi beharko da apustu horretatik kanpo geratu den Aralarrek zein neurritan higitzen duen –izenak izen- Euskal Herria Ezkerretik.

Aralarrek Euskaldunakoaren aurretik erabaki zuen EAEn bakarrik aurkeztea eta Sorturen aurkezpenak piztu duen giroak ataka estura eraman dezake. Hor ikusiko da 2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan lortutako 62.000 botoen fidelitasuna –Batasunak boto balio-gabea eskatu zuen– noraino iristen den, baina ez da zalantzarik haietako askorentzat oso erakargarria egin dela ezker abertzaleak, EAK eta Alternatibak eskaintzen duten etorkizuna.

Beti esan da ETArrik gabeko ondorenean euskal mapa politikoa aldatu egingo dela. Nafarroan inon baino ageriago geratu da hori azken asteotan eta abertzaleak ezohiko bi bloketan lehiatuko dira: 2007ko NaBaitik geratu dena (Aralar, EAJ eta independente talde bat) batetik, eta ezker abertzalea eta EA bestetik. Gaur gaurkoz, ez dago oraindik garbi ezken hauek zein egituraketa izango duten, baina bai bi bloke horiek izango direla lehia bizian. Apirilaren 18rako behinik-behin

zerrendek osatuak beharko dute.

Zenbakiei begira, izango da konparaketa ugari egiteko modurik, baina hara erreferentzia batzuk: Euskal Herriarrok (EH) hautagaitzak (HB + Batzarre) 47.000 boto lortu zituen Nafarroan 1999ko foru hauteskundeetan eta NaBaik ia 78.000 (ezker abertzaleko hautagaitzak legez kanpo zirela) 2007an. EAeri dagokionez, EHk 224.000 boto lortu zituen 1999ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

Zenbakiena ez da giltzarri garai honetan, edozelako etorkizunerako gatazkari amaiera duina jartzea da lehenasuna eta horretarako bake prozesuan sakontzeko sustraiak ondo finkatzea da garrantzitsuena. Bide hori errazten duenak uzta jasoko du; oztopatzen duenak zigorra. Edo hala beharko luke bederen. Baina,aldi berean, zabaltzen ari den etorkizun berriaren giltza ere badira zenbakiak eta, alde horretatik, zenbakien borroka latza bezain ikusgarria aurrikusten da hemendik maiatzaren 29ra arte. ■





1

LANDER ARBELAITZ



2

LANDER ARBELAITZ



3

ARGAZKI PRESS / GORKA RUBIO



4

ARGAZKI PRESS / GORKA RUBIO




5

LANDER ARBELAITZ

**Urbano**  
jatetxea

Abuztuaren 31, 17 (Alde Zaharra)  
Donostia  
☎ 943 420 434  
[www.restauranteurbano.com](http://www.restauranteurbano.com)







6

LANDER ARBELAITZ



7

LANDER ARBELAITZ



8

ARGAZKI PRESS / MARISOL RAMIREZ

1) Bilbon otsailaren 19an egindako manifestazioan bildutako jendea, udaletxe aurrean. Amaierako ekitaldiko testua irakurtzen. 2) Iñigo Iruin eta Jone Goirizelaia ezker abertzaleko abokatuak eta Rufi Etxeberria, bozeramailea. 3) Oskar Matute (Alternatiba) prentsaren aurrean deklarazioak egiten. 4) Txiki Muñoz (ELA) eta Pello Urizar (EA) manifestazioan berriketan. 5) Iñaki Zabaleta katedraduna, Sorturen sustatzaileetako bat. 6) Bilboko manifestazioaren irudia kaleetan barrena. Azkenaldian Bilbon egin den manifestazio jendetsuenetako bat izan zen *Bakerantz, legalizazioa* leloarekin egindakoa. Isiltasuna irrintziek eta txalo zaparradek hautsi zuten. 7) Manifestaziora hurbildutako pertsona bat hasierako pankartari argazkia ateratzen. 8) Udaletxeko eskaileratan, bildutako jendetzaren aurrean, tartean Mainer Etxeberria, Sortuko idazkari nagusia.

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)



DANI BLANCO

*Carlañe Bimrrun Mancisidor*

EPAILEA

## Aro berri bat sortuz

DENBORA LUZE daramagu bakeaz hitz egiten. Oraingo honetan, inoiz ez bezala, badirudi bakea lortzea posible dela. Ezker abertzale historikoari eten gabe eskatu zaio bere ardurari erantzuteko. Azkenean, hausnarketa egin eta erabaki sendoa azaldu digute.

Otsailaren 7an Euskalduna Jauregian Batasunari lotutako ezker abertzaleak proposamen berria aurkeztu zuen. Han izan nintzen, egun historikoa izango zelakoan, eta horrela gertatu ere. Eguerd hartan eta hurrengo egunetan entzundakoa itxaropen berria eta sendoa ireki du nire barnean eta gure gizartean. Bakerako guztiz ezinbestekoa baitzen ezker abertzaleak ETArri sostengu edo babes politiko osoa ukatzea. Lehenbiziko aldiz, azken 50 urteotan, ETak ez dauka aitzaki politikorik; beraz, ETA ez dauka inolako etorkizunik.

Sortu indar politiko berria aurkeztu dute ezker abertzale historiko-

ko kideek; politika hutsa egin nahi dutela adieraziz. Horrela, Alderdien Legearen arabera, legala al da Sortu? Giza Eskubideen Europako Estrasburgoko Auzitegiak ontzat eman zuen Batasuna legez kanpo uztea, baina epai horretan gogorarazi zuen Estatuek bermatu behar dutela hauteskundeetan alderdi politiko anitzek parte hartzea.

Auzitegi Gorenak esan du, baita ere, legez kanpo deklaraturako alderdi baten kideek eskubidea dutela alderdi politiko berria eratze-ko, baldin eta aurrekoaren jarraipen hutsa ez bada.

Sortu alderdi berriaren estatutuek ezker abertzalearen aurreko jarduera politikoarekin hautsi egiten dute. Estatutu horietan Sortuk adierazi du edozein indarkeria eta terrorismo, baina bereziki ETarena, desagerrarazten lagundu nahi duela eta indarkeria errefusatzeko duela, ETarena barne.

Garbi dago Sorturen sustatzailea ezker abertzale historikoa dela. Noski; hori espero genuen eta hori zor ziguten denoi. Baina alderdi berri honek esaten duena guztiz berria da. Auzitegi Gorenak eskatu zuen jarduera terrorista errefusatzeko, eta hori egiten da. Beraz, ezker abertzalea berritu da; mugimendu politiko berria da; bere iraganarekin hautsi egin du. Legearen eskakizun guztiak betetzen ditu eta, horregatik, besterik gabe, legala da.

Baina hau ez da lege kontua bakarrik. Ezker abertzale honek hartu duen erabakiak ez dauka atzera pausorik. Demokraziak, bakeak, giza eskubideek eta askatasunak osatzen duten mundua eta gizartea oso erakargarriak dira eta behin unibertso berri honetan sartuz gero, ezinezkoa bihurtzen da atzera egitea.

Aro berria, beraz, ezker abertzale historikoarentzat eta euskal gizarte osoarentzat. Lorpen handia, zalantzarik gabe: pertsonak eta talde askok egin duten lana handia izan da helburu hau lortzeko (indarkeriaren aurka eta askatasunaren aldeko lana, pertsona guztion duintasunaren eta eskubideen aldeko lana); azkenean, ezker abertzaleak egin duen hausnarketa ere sakona izan da eta bere emaitza bistan da.

Oraingo honetan bestelako etorkizuna lortzea nahi nuke. Etorkizun horretan inork ez du kanpoan geratu behar: denok izan behar dugu lorpen horren protagonista, baita Sortu indar berriak ere. ■







DANI BLANCO

Mario Zubiaga

EHUKO ZIENTZIA POLITIKOETAKO IRAKASLEA

## Mozorro festa

ARDIZ JANTZITAKO otsoen festan otsoz jantzitako ardi bakarra izan da ezker abertzalea. Demokrasiaren larrua zeramatenek ezin zuten onartu haien dantza zinikoan demokrazian benetan sinesten zuen gonbidatua: otso gaiztoa omen zenaren atzaparren azpian ardi inozentea egon baita beti, sineslea. Sinesle demokratikoa. Demokrazia sakontzearen bidetik arazo guztiak konpon daitezkeela uste duen ameslari zintzoa. Urte luzeetan, ziurrenik oso eroso ez zuen otso-mozorroa jantzita, haginkadak eman ditu han eta hemen, konturatu arte erasotakoan artilezko larruaren azpian, bera baino piztia askoz ere indartsuagoak zeudela ezkutatuta eta, aienean artean, irribarrea zutela agin zorrotzetan itsatsita. Alde bietan pairatzen ari zen sufrimenduaren kontura.

Metafora hau euskal politikak azken urteotan bizi izan duen garabidearen erakuslea izan daiteke. Dena den, Legeztatzea –halabeharrez otso larrua kentzea dakarrena–, ez da ezker abertzaleak duen kinka estrategikorik larriena. Orain etorriko da –Sortu markarekin–, ala hurrengoan, beste batekin. Urrats horren baldintza teknikoak beteta dauden arren, PP eta PSOEn arteko kontsentsuak, hots, sistemen komenigarritasun politikoak aginduko du unea. Eta, manifik manifa, ez dirudi ezker abertzalek eskaera horretan jarriko duenik zeharkatu ezinezko marra gorria. Izan ere, kontu askoz ere sakonagoak daude jokoan datozen hilabete eta urteetan. Batzuetan arbuigarria

beti miresgarria, mende Erdiko ibilbide historiko latzaren amaiera ezin da hauteskunde zehatz batzuen menpe jarri. Oso garrantzitsuak izanda ere.

Borroka armatua uzteak, hamar urte luze behar izan ditu jomugara iristeko: Lehenik, EAJri saldu nahi izan zitzaion, gero PSeri eta, azkenean, arerioak prezio egokian inoiz ez duela erosiko konturatu orduko, musu truk eman dizkio ETak ezker abertzaleari arma biltegiaren giltzak. Azken urrats hau kudeatzeko erabili den inteligentzia politikoa, ausardia eta, Alex Maskeyek esan bezala, barne indarra, ez dira nolana hikoak izan. Gerrak gal daitezke, baina gerra guztiak galduta ere, irauten asmatzea da kontua. Eredu antropologiko gisa “galtzaile iraunkorrarena” izango litzateke euskal identitatearen osaketa historikoaren emaitza. hauxe da, hain zuzen ere, ezker abertzaleari etorkizunean zabaltzen zaion aupada: izaera

galdu gabe, irautea. Horretarako, bi muturren artean burutu beharko du bere jardura politikoa:

-Ardi larrua jantzita, alderdikoia izaten ikasi, otso maltzurren artean maltzurrena, egiturazko krisian dauden beste alderdi politikoen dantzan murgilduta, sozialdemokrazia europarraren ildo antzuak ekiditen trebatu, edota,

-Ardi faltsuen artean ardi zinezko bakarra izaten jarraitu, otso mozorrorrik gabe eta ardiek duten indarra profitatuz: taldea. Botere eta identitate jardueren bitartez (ar)talde sendoak osatzea baita, politikaren krisi globalari aurre eginez herri abertzaleak bere gara(i)pena burutzeko izan dezakeen modua.

Horregatik legeztatzea ez da amore ematea, ez da jauzi arriskuetsua, ardien benetako indarra askatzeko behar zen biluztea baino ez da, hauteskundeetara zuzenean aurkeztu ahal izatea, izanda ere, ez da hain erabakitzailea. ■

ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO

